

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jane Erramuzpe

*Diaspora,
Diaspora
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Ezkonduz geroztik, Jane Etchebehere. Fresno (Kalifornia) jaioa, guraso biak euskaldunak zituen: ama Azkaratekoa (NB) -1903an Fresnoa joana, osabengana- eta aita Erratzukoa (N): 1897an Stocktonera joan zen, Kaliforniara, artzain. Alaba bakarra, 6 urtetik 18ra bitarte Tranquility herrian bizi izan ziren eta han ibili zen eskolan. 1947an Fresnoa joan zen bizitzera; administrari lanean hasi zen. Urte horretan bere senarra izango zena (Pierre Etchebehere, Irisarrikoa) Ameriketara joan zen artzain. Elkar ezagutu, ezkondu, eta bost seme-alaba izan zituzten; ardi-konpainia izan zuten Lemooren (1953etik bertan bizi izan dira): Jane sukaldean aritzen zen. Hurrei euskaraz egiten zieten. Jane dantzazalea zen eta Fresnoko Basque hotelean dantzak irakasten ibili zen. Fresnoko Santa Fe euskal jatetxean egin genion elkarrizketa.

Zintak

DIA-022

- **Proiektua:** Diasporako Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2025-10-09
- **Iraupena:** 51 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com